



Bertaratutako kideak:

**Mari Luz Sanz Escudero**

Nafarroan desgaitasuna duten pertsonen ordezkaria (CERMIN)

**Pablo Arriazu Amat**

Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

**Maite Pellejero Olcoz**

Ikastetxe pribatu itunduetako zuzendarien ordezkaria

**Santiago Álvarez Folgueras**

Ikasleen Gurasoen Elkartearen Federazioen ordezkaria (HERRIKOA)

**María Teresa Módol Betriu**

Ikasleen Gurasoen Elkartearen Federazioen ordezkaria (CONCAPA)

**Antonio Bellido Pérez**

Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

**Marta Díez Napal**

Ikasleen Gurasoen Elkartearen Federazioen ordezkaria (SORTZEN)

**María Jesús Salanueva Uriarte**

Ikastetxe pribatuetako irakasleen ordezkaria (FETE-UGT).

**Javier Azanza Fuentes**

Unibertsitatetik kanpoko Nafarroako ikastetxe publikoetako ikasleen ordezkaria.

**Ignacio M<sup>a</sup> Iraizoz Zubeldia**

Nafarroako ikastetxe pribatuen entitate titularren ordezkaria (ANEG-FERE)

**Arantxa Ruiz Vidorreta**

Ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria (STEE-EILAS)

**Germán Chocarro Garbayo**

Ikasleen Gurasoen Elkartearen Federazioen ordezkaria (BRITILA)

**Isabel Fernández Pan**

Sindikatuaren ordezkaria (UGT)

**Josu Reparaz Leiza**

Nafarroako ikastetxe pribatuen entitate titularren ordezkaria

Iruñean, 2022ko ekainaren 15eko 17:00etan, Nafarroako Eskola Kontseiluaren osoko bilkura edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia bildu da Nafarroako Eskola Kontseiluaren egoitzan, Manuel Martín Iglesias jauna kontseiluburu dela, alboan adierazitako kideak bertan direla, eta Antonio Iriarte Moncayola jauna idazkari dela, honako gai-zerrenda honekin:

1. Aurreko bileraren akta berrikustea eta, hala badagokio, onestea.
2. Kontseiluburuaren informazioa.
3. 7/2022 Irizpenaren zirriborroa.
4. 8/2022 Irizpenaren zirriborroa.
5. Hezkuntza Itunaren zirriborroa.
6. Galderak eta eskaerak.



(Nafarroako Ikastolen Elkarte)

**Tomás Rodríguez Garraza**

Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

**Begoña Unzué Vela**

Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

Ezin etorria adierazi dute:

**Oihane Jordán Mosén**

Ikastetxe publikoetako irakasleen  
ordezkaria (LAB)

**Lourdes Larunbe Arretxe**

Ikastetxeetako Administrazioko  
eta Zerbitzuetako langileen ordezkaria.

**Sonia Rivas Borrell**

Unibertsitateen ordezkaria  
(Nafarroako Unibertsitatea)

**M<sup>a</sup> Soledad Garjón López**

Ikastetxe publikoetako irakasleen  
ordezkaria (AFAPNA).

Ez dira bertaratu:

**Gil Sevillano González**

Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

**Iosu Mena Sarasola**

Ikastetxe publikoetako zuzendarien  
ordezkaria

**María Rodríguez Morán**

Ikasleen Gurasoen Elkarten Federazioen  
ordezkaria (HERRIKOA)

**Cristina Bayona Saez**

Unibertsitateen ordezkaria  
(NUP)

**José Jorge Lanchas Rivero**

Nafarroako ikastetxe pribatuen entitate  
titularren ordezkaria (ANEG-FERE)

**Pedro Rascón Macías**

Aitortutako ospea duen pertsona

**Mikel Rodríguez Aguirreche**

Enpresarien elkarten ordezkaria.

**Pilar López Valderrama**

Ikastetxe pribatuetako irakasleen  
ordezkaria (FSIE-SEPNA)

**Jabi Arakama Urtiaga**



Nafarroako Parlamentuaren ordezkaria  
(Geroa Bai)

**Esther Lacasta Pérez-Ilzarbe**

Toki entitateen ordezkaria

**Patricia Fanlo Mateo**

Nafarroako Parlamentuaren ordezkaria  
(I-E)

**Mario Fabo Caleo**

Toki entitateen ordezkaria

**Ainara González Rubio**

Berdintasunaren alde lan egiten duten  
elkarteen ordezkaria

### **1. Aurreko bileraren akta berrikustea eta, hala badagokio, onestea.**

Kontseiluburuak kideei galdetu die ea egin behar duten aurreko bileraren aktari buruzko alegaziorik edo iruzkinik.

Akta onetsi da, bertaratutako kideek baiezkoa emanda.

### **2. Kontseiluburuaren informazioa.**

Kontseiluburuak Nafarroako Eskola Kontseiluak 2022ko maiatzaren 19tik ekainaren 15era bitartean egindako jardueren berri eman du. Halaber, IDEA aldizkariaren 55. zenbakia argitaratuko dela jakinarazi du. Zenbaki horrek «Autonomia, ebaluazioa eta parte-hartzea ikastetxeetan» izenburua du, eta Nafarroako Museoan 2022ko otsailaren 10ean egindako jardunaldiak ditu hizpide.

### **3. 7/2022 Irizpenaren zirriborroa.**

Kontseiluburuak osoko bilkuran erabili ohi den sistema bera aplikatzea proposatu du; hala, Lantaldeak eta Batzorde Iraunkorrak onesten dituzten zuzenketak onetsizat emanen lirateke, baldin eta kontseiluko kideren batek berariaz eskatzen ez badu haiei buruzko eztabaida eta bozketa egin dadila.



Batzorde Iraunkorrek onetsitako zuzenketak onetsizat emateko proposamena onetsi da, bertaratutako kideek baiezkoa emanda.

Jarraian, aurkeztutako zuzenketak eztabaidatu eta bozkatzea proposatu du kontseiluburuak, eta emaitza hau izan da:

- 1. zuzenketa: Aldeko botoak: 1; kontrako botoak: 13; abstentzioak: 2. Ezetsi egin da.
- 2. zuzenketa: Aldeko botoak: 0; kontrako botoak: 12; abstentzioak: 4. Ezetsi egin da.
- 4. zuzenketa: Aldeko botoak: 1; kontrako botoak: 13; abstentzioak: 3. Ezetsi egin da.
- 6. eta 7. zuzenketak: Aldeko botoak: 15; kontrako botoak: 1; abstentzioak: 1. Onetsi egin dira.

3/2022 Irizpena bozkatu da, eta honako emaitza honekin onetsi da: Aldeko botoak: 14; kontrako botoak: 1; abstentzioak: 2.

María Teresa Módol Betriuk adierazi du boto partikular bat aurkeztuko duela 7/2022 Irizpenean.

#### **4. 8/2022 Irizpenaren zirriborria.**

Kontseiluburuak jakinarazi du aurkeztutako zuzenketa bakarra Lantaldeak eta Batzorde Iraunkorrek onetsi dutela, eta onetsizat ematea proposatu du.

Onetsi egin da, bertaratutako kideek baiezkoa emanda.

8/2022 Irizpena bozkatu da, eta honako emaitza honekin onetsi da: Aldeko botoak: 14; kontrako botoak: 1; abstentzioak: 2.

María Teresa Módol Betriuk adierazi du boto partikular bat aurkeztuko duela 8/2022 Irizpenean.

#### **5. Hezkuntza Itunaren zirriborria.**



Kontseiluburuak labur azaldu du prozesuaren nondik norakoa eta testuaren idazketan lortutako adostasunak, eta testuaren VIII. zirriborroa idazten ari direla adierazi du.

.

## **5. Galderak eta eskaerak.**

María Teresa Módol Betriuk galdetu du ikastetxeetara igorri den foru agindu bati buruz: agindu horrek D ereduko batxilergoa arautzen du, eta eranskinetan hiru ibilbide posible aipatzen dira. Hala ere, bere ikastetxean ez dira eranskin horiek agertzen.

Pablo Arriazu Amatek erantzun dio begiratuko duela eta zerbait jakinaraziko diola.

Eta aztergai gehiagorik egon ez denez, kontseiluburuak osoko bilkurara bertaratu diren kideen parte-hartzea eskertu du, eta bilera bukatutzat eman du 19:20an, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.